


GIPUZKOAKO ELKARTEEN FOROA

2024 urteko jarduera txostena



Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundia

2025eko apirila



Edukien aurkibidea

0.	Aurkezpena.....	3
1.	Gipuzkoako Elkartearen Foroa.....	4
	Zer da	
	Zertarako	
	Nortzuk	
	Nola funtzionatzen du	
2.	Foroaren jarduera 2024an.....	10
	Edukiak eta emaitzak: sintesia	
	Parte hartu duten eragile eta pertsonak	
	Zehatzago, gako batzuk	
3.	Urteko balorazioa	25
	2024 urtea ixteko	
	Jarraipena 2025 urtean	


O

Aurkezpena

Dokumentu honetan Herritarren Partaidetzarako Gipuzkoako Elkarten Foroak 2024 urtean egin duen bidea eta garatutako jarduera laburbiltzen ditu.

Azken urteetako txostenen eskema jarraituz, dokumentu honek honako hauek biltzen ditu:

- Elkarten Foroaren oinarrizko informazioa.
- 2024 urterako definitutako lan-programa.
- Garatutako lan-prozesua, jarduketa eta emaitza garrantzitsuenen xehetasunekin.
- 2025 urtean jarraitzeko oinarria.



1 Gipuzkoako Elkarteen Foroa

Zer da

Gipuzkoako Elkarten Foroa herritarren parte-hartzea bultzatzen duten lurraldeko elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua elkartu eta lankidetzan aritzeko gunea da.

Gune honen xedea Gipuzkoan herritarren parte-hartzea eta elkartegintza sarea indartzen laguntzea da; horretarako sinergiak sortuz, lidergo partekatuen alde eginez, administrazioarekin lankidetzako proiektuak garatuz eta elkartegintza ikusarazteko estrategien bidez.

Ekosistema irekia eta malgua da, Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzen duten elkartei zabalik.

Elkarten Foroak 2020. urtearen amaieran ekin zion ibilbideari, lurraldeko hainbat elkarte egindako eskaerari erantzunez bilgunearen sorrera jaso baitzen 2019-2023 Herritarren Partaidetzarako Programan.

2019-2023rako Herritarren partaidetzarako Programa

46. ekintza Elkarten Foroa

Ekintza horren bidez, Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzen duten erakundeen bilgune bat sortu nahi da. Helburu hauek izango ditu: batetik, hausnarketak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta Gipuzkoako herritarren elkarten esperientziatik ikasteko espazio bat sortzea, kultura parte-hartzaileagoa sustatzeko asmoz; eta, bestetik, herritarrek parte hartzeko komunitate mailako prozesuak bultzatzea.

Beraz, 2024. urtea Foroaren ibilbideko laugarren urte osoa izan da.

Urte honetan Elkartearen Foroaren aldeko foru-apustua indartu egin da, 2024-2027 aldirako Herritarren Partaidetzarako Programa berria esplizituki jasotzen den bezala:

Herritarren Partaidetza Programa 2024-2027

3. Helburu Estrategikoa. Partaidetzan Kalitatean sakontzea

3.2. Lan-ildoak. Aliantzak eta sareak zaintzea, indartzea eta berriak eraikitzea kalitate demokratikoa hobetzeko

3.2.1. Ekintza. Aldundiaren partaidetza egitura iraunkorrak (Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Gizarte Kontseilua, Erakunde Arteko Espazioa eta Elkartearen Foroa) kudeatu, elikatu eta zaindu, elkarrekin lan egiteko baliagarriak diren adostasunak eraikiz.



Helburuak

Gipuzkoako Elkartearen Foroaren helburuak dira:

- **Elkarren ezagutzan sakontzea:** elkarreak haien artean, eta elkarreak eta Gipuzkoako Foru Aldundia, batzen dituen abiapuntu hartuta: herritarren parte-hartzearen sustapena eta harekiko konpromisoa.
- **Lurraldean egiten den elkartegintza** eta horrek gizartean komunitatea eraikitzeke egiten duen ekarpena **aitortzea, sozializatzea eta ikusaraztea.**
- **Herritarren parte-hartzeari buruz gogoeta egitea eta sakontzea.** Eta prozesu horretan, horretan lagunduko duten ekintza, ekimen eta proiektu partekatuak abiaraztea.
- Erakundeek herritarren parte-hartzearekin lotutako **prestakuntza-beharrizanak** identifikatzea eta erantzun partekatua ematea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte-hartzearen arloan dituen eta eskaintzen dituen **tresnak ezagutaraztea:** Foru Araua, Herritarren Partaidetzarako Programa, dirulaguntzak, Bidelaguntza programa eta beste batzuk. Eta **sinergiak bilatzea** lotutako helburuak dituzten beste espazio batzuekin –Aldundi barruan eta kanpoan–.

Horretarako, Elkartearen Foroaren planteamenduan eta bilakaeran **hipotesi batzuekin lan egiten da** sortu zenetik. Zehatz mehatz:

- Administrazioa eta elkarreak hurbil, elkarrekin eta egiteko modu desberdinekin lan egiteko guneak frogatzen badira, elkarrekiko konfiantza areagotu eta lankidetzak praktikak eman ahal izango dira.
- Herritarren partaidetza txertatuz diharduten elkarrekin topaguneak badituzte, haien arteko lankidetzak areagotu egingo da; eta, ondorioz, lurraldean parte hartzeko praktikak, proiektuak eta prozesuak areagotuko dira.
- Elkartegintzak gizartean daukan eragina eta onura ikusarazten laguntzen bada, herritar gehiago hurbilduko dira lurraldeko elkarrekin, eta balioa emango zaio gizarteari eta komunitateak sortzeko egiten dioten ekarpenari.

Nortzuk

Askotariko prozesu, proiektu eta ekimenen bidez herritarren parte-hartzea bultzatzen duten Gipuzkoako elkarteek parte hartzeko **espazio irekia** da Elkarteen Foroa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuarekin batera.

Lehen urte hauetan lehentasunez sustatu da Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak diruz lagundutako herritarren partaidetzako proiektuak dituzten eragile eta elkarten parte-hartzea. Nolanahi ere, espazioak malgua eta irekia izaten jarraitzen du, elkarte gehiagoren sarrerak eta irteerak ahalbidetuz, alde batetik; eta gunea eutsiko duen gutxieneko elkarte-talde bat mantentzen saiatuz, bestetik.



Nola funtzionatzen du

Elkarteen Foroak funtzionamendu-oinarri bat du, 2020ko abenduko lehen topaketan definitu zena, eta oraingoz mantentzen dena. Laburbilduz:

Edukiei dagokienez

Elkarteen Foroak 2 ardatz nagusitan oinarritzen du bere jarduna:

- Bata **herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko kultura** bultzatzen laguntzea da.
- Eta beste ardatza **elkartegintza aitortu, indartu eta balioestea da**, komunitatea sortzearen eta gizarte kohesioaren alde egiten duen ekarpenagatik.

Badira zeharkako beste ardatz batzuk ere:

- **Harremantzeko eta egiteko moduetan parte hartzea txertatzea**, eta horretan eginez gaitzen joatea, taldean dauden pertsona eta eragileen ezagutzak balioan jarritz.
- Administrazioaren eta elkarteen arteko **lidergo partekatuak** eta konfiantzazko harremanak nola landu daitezkeen frogatzea.
- **Ekintzara bideratzea**, espazioak emaitza ukigarriak ere eman ditzan.

Formari eta antolaketari dagokienez

- **Gipuzkoako Elkarteen Foroaren osoko bilkurak dira muina.**
 - Urtean zehar Foroaren 4-5 saio egiten dira.
 - Herritarren parte-hartzean inplikaturik dagoen eta interesa duen Gipuzkoako erakunde/elkarte orori irekitako saioak dira.
 - Urteko lehen saioan zehazten dira, Aldundiaren eta parte hartzen duten erakunde eta elkarteen artean, ekitaldirako helburuak eta lanaren oinarrizko eskema.
 - Hurrengo saioetan sakonago eta zehatzago lantzen dira lehenetsitako edukiak edo eremuak.
 - Eta urteko azken saioan egindakoaren balorazioa egiten da, espazioaren jarraitutasunerako ikaskuntzak ateratzeko helburuarekin.

Saio bakoitzaren diseinu zehatzaz **talde eragile** bat arduratzen da. Talde hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oheko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko lantaldeak eta kanpoko laguntza-taldeak osatzen dute, beti ere Foroan bertan adierazi eta finkatutakoa oinarri hartuta.

- **Osoko bilerak gaikako lantaldeekin osatzen dira**, landu beharreko edukien eta erronken arabera. Talde horiek premiaren arabera aktibatzen dira, zeregin argi batekin, eta parte-hartzaile talde txikiagoarekin haien eraginkortasuna zaintzeko.
- **Barne-komunikazioa errazteko** eta harremanetan egoteko *slack* plataforma bat gaituta dauka Foroak; hala ere, posta elektronikoa da erabiltzen den bide nagusia.



2

Foroaren jarduera 2024 urtean

Edukiak eta emaitzak: sintesia

2024 urte honetan, Gipuzkoako Elkartearen Foroak une oro izan ditu gogoan lortu nahi dituen helburuak.

Hona hemen helburuak, laburbilduta:

- Elkar ezagutzea.
- Gipuzkoako elkartegintza aitortzea, sozializatzea eta ikusaraztea.
- Herritarren parte-hartzeari buruz hausnartzen eta lantzen jarraitzea.
- Sinergiak bilatzea antzeko helburuekin lan egin behar duten beste espazio batzuekin –Aldundi barruan eta kanpoan–.
- Elkarrekin eginez, eta erakundea eta elkarteak biltzen diren espazio anitza baliatuz, ikasten eta zubiak eraikitzen jarraitzea.

Horiei guztiei ekarpena egiteko...

- **Elkarteen Foroa 6 aldiz bildu da osoko bilkuran.**

2024ko otsailaren 1ean, martxoaren 19an, ekainaren 18an, urriaren 7an eta 2025eko urtarrilaren 10ean (2024 amaieran egitekoa bazen ere, urte hasierara pasa zen agenda kontuengatik).

- **Osoko bilkura horietan...**

Gaiei dagokienean, PREST egitasmoan sakontzeak hartu du protagonismoa urteko saio desberdinetan.

Saio guztietan barneratu dira elkarteen artean eta elkarteen eta Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren arteko ezagutza areagotzeko dinamikak; gainera, bereziki zaindu dira etorri berriei egindako harrerak.

Egiteko moduetan dinamika desberdinak planteatu dira, partaidetza eta ko-sorkuntza erraztu eta aldi berean moduetan ere gaitzen joateko.

Etengabe loturak eta sinergiak bilatu dira -beste espazio batzuekin, beste gai batzuekin...-.

Beti gorde da denbora bat parte hartzen duten erakunde eta elkarteek informazio interesgarria partekatzeko.

- **Gainera, aurten 2 lantalde aktibatu dira, lehenetsitako gaietan modu eraginkorragoan aritzeko.**

Biak ere iaztik datorren PREST egitasmoan sakontzea izan dute helburu:

- Lantalde bat elkartegintza balioan jartzeko ikus-entzunezkoa landu eta gauzatzeaz arduratu da.
- Eta bestean 2-3 udalekin batera PREST garatzeko egin nahi den proiektu pilotua diseinatzeko lanketa abiatu da.

Bi lantaldeek Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren laguntza izan dute.

Parte hartu duten eragile eta pertsonak

Sarreran aipatu bezala, eta aurreko urteetako joerari eutsiz, Gipuzkoako Elkarteen Foroak aurten ere gune berean bildu ditu:

- Herritarren partaidetzatik eta herritarren partaidetzarako libilbidea, konpromisoa eta borondatea duten Gipuzkoako elkarte eta erakunde anitzak. Elkarte horiek hainbat helburutan oinarritzen dute bere jarduna: kultura-aniztasuna, gazteria, berrikuntza eta gizarte-ekonomia, euskara, elkartegintza eta komunitatearen sustapena, zaintzak, egoera zaurgarrian dauden pertsonen arreta, artea eta kultura, ingurumena, etab.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua.

2024 urteko zenbaki batzuk

- **Guztira, Gipuzkoako 31 elkarte** parte hartu dute modu aktiboan Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko taldearekin batera Elkarteen Foroaren saioren batean (edo gehiagotan). 2023an 28 elkarte izan ziren, eta urtez urte hazten doan zenbakia da.
- Aldi berean, **10-15 elkarte osatutako nukleo egonkor bat mantendu egiten da**; trakzio-eragileak dira eta iritsi berriei harrera egitea errazten dute.
- Pertsona eta bertaratze kopuruari dagokionez:
 - **56 pertsona desberdin** (43 emakume eta 13 gizon) bertaratu dira Foroaren topaketaren batera edo gehiagotara. Iaz 43 izan ziren, 25 emakume eta 18 gizon.
 - Guztira **137 asistentzia** zenbatu dira egindako 6 saioetan (iaz 78 izan ziren, bilera bat gutxiago egin zelarik); batz bestea 20-24 pertsona bertaratzen dira saio bakoitzera.
 - Elkarte eta pertsona talde txikiago batek inplikazio eta dedikazio boluntario handiagoa izan du aktibatu diren **2 lantaldeetan**, Zerbitzuko taldeak lagunduta.

Jarraian, 2024an Elkarteen Foroari lotutako jardueretan parte hartu duten elkarten eta pertsonen xehetasunak jasotzen dira.

Elkartea	Pertsona	1 saioa 2024.02.01	2 saioa 2024.03.19	3 saioa 2024.05.06	4 saioa 2024.06.18	5 saioa 2024.10.07	6 saioa 2025.01.09
Gipuzkoako gizarte-erakundeak eta elkarteak							
Abako	Laura						•
AGALDELPRISE	Vanesa			•			
AGIJUPENS	Joxe Agustin				•		
Arrats elkartea	Kotte	•		•	•	•	
Arditurri elkartea	Enara					•	
	Javier					•	
Anaka Puiana auzo elkartea (Irun)	Txomin	•	•	•	•	•	•
	Marian	•					
Baketik	Maider						•
	Maite						•
Gipuzkoako Farmazilarien Elkargoa	Xabier	•					•
	Leire		•				
Dar-Dar gizarte ekimeneko kooperatiba	Asier			•			•
	Iker				•	•	
EDE Fundazioa eta Landetxa auzo elkartea (Irun)	Maider	•		•	•	•	•
Elkartu	Maialen	•					
	Adriana		•				
Emigrados/as sin fronteras	Jessica		•				
	Victor			•			
	Gema				•	•	
Eusko Ikaskuntza	Koro	•	•	•	•	•	•

Elkartea	Pertsona	1 saioa 2024.02.01	2 saioa 2024.03.19	3 saioa 2024.05.06	4 saioa 2024.06.18	5 saioa 2024.10.07	6 saioa 2025.01.09
Gipuzkoako gizarte-erakundeak eta elkarteak							
Haurralde Fundazioa	Samantha	•					
	Andrea		•				
	Akhnaton			•			
	Eider				•		
	Oafa				•		
	Nerea					•	
	Patricia					•	
Gipuzkoako Senideak	Garazi						•
	Beatriz	•	•	•			•
GIZALDE / Hezkide Eskola	Miren	•		•	•	•	•
Impact Hub Donostia	Xabier	•	•	•		•	•
KAEBNAI	Ainhoa	•	•	•			
	KERA	Palmira			•		
Ana				•			
Kukulaisi	June	•	•	•	•		
Labore Txingudi	Oihana		•	•			•
Landarbaso abesbatza	Iñaki	•					
	Lleno de Naranjas	Imatxi,	•	•	•		•
Andrey			•	•			
Lotura Giza Garapena	Mariajo						•
	Nadia						•
Oinherri Herri Hezitzaileak	Maite		•	•		•	
Politki elkarteak	Maria		•		•		
Surfrider	Maria	•	•	•	•		•
	Jacqueline					•	
Tekum Fundazioa - EKAI Center	Errukane					•	

Elkartea	Pertsona	1 saioa 2024.02.01	2 saioa 2024.03.19	3 saioa 2024.05.06	4 saioa 2024.06.18	5 saioa 2024.10.07	6 saioa 2025.01.09
Gipuzkoako gizarte-erakundeak eta elkarteak							
Zehar Errefuxiatuekin	Elena	•	•			•	
	Lide			•	•		
	Irati						•
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua							
Irene Berasaluze, diputatua			•				
Mikel Pagola, zuzendaria		•	•	•	•	•	•
Itziar Calvo, zerbitzuburua		•	•		•		•
Joxe Piñas, teknikaria		•	•	•	•	•	•
Olatz Dañobeitia, teknikaria			•	•			
Errazteko kanpo-laguntza taldea							
Prometea	Iciar	•	•	•	•	•	•
	Zorione	•	•	•	•	•	•



Zehatzago, gako batzuk

Jarraian, 2024an Gipuzkoako Elkarten Foroari lotutako jarduera zehazten da, honako hauei dagokienez:

- Elkarten Foroaren osoko bilera irekiak
- Barne-koordinazioa
- Etengabeko komunikazioa: *slack* plataforma

Foroaren osoko bilkura irekiak

2024an 6 osoko bilkura egin dira.

Aurrez-aurrekoan aritu gara: batetik, parte hartzen duten elkarteek topaketa- eta ezagutza-guneari ematen dioten garrantziagatik; eta bestetik, presentzialtasunak erraztu egiten duelako lehenengoz gune honetara datozenen harrera eta girotzea.

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua, Prometea kanpoko taldearekin batera, saio bakoitzaren diseinuaz arduratu da, Foroan adostutako urteko helburuetatik eta saio bakoitzean landutakoetatik abiatuta.

Saio bakoitza Prometea taldeak erraztu du -hitzez eta grafikoki-, eta Aldundiak eskainitako aldi bereko itzulpen-zerbitzua ere eman da. Gainera, bilera bakoitza txosten hau osatzen duten emaitzen akta-dokumentu batean dokumentatuta geratu da.

Topaketen batez besteko balorazioa 10etik 9,2koa izan da (iaz baino 0,5 puntu altuagoa).

Hona hemen topaketa bakoitzaren laburpena:

1. topaketa

2024ko otsailak 1, osteguna, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburuak-gaiak

- Partaideei (ohikoei eta berriei) harrera ona egitea, Elkarteen Foroa ekosistema irekia eta bizia den heinean.
- 2020an martxan jarritako Elkarteen Foroaren ibilbidea laburbiltzea: nortzuk aritu garen, zertarako eta zertan, eta zer lortu dugun orain arte -emaitzak-.
- Horrekin, eta daukagunetik abiatuta, proiektio xume bat egitea elkarrekin:
 - Datozen 3-4 urteetan, norantz egin nahi dugu? Zeintzuk dira presente izan nahi ditugun "mantra" edo gidalerroak?
 - Epe laburragoan: 2024an zer lortu nahi dugu Elkarteen Foroan?
- Informazio-trukea.

Asistentzia

- 22 pertsona (15 emakume eta 7 gizon), 17 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari gisara; eta erraztaile taldea.

Emaitza nagusiak

- Elkarteen Foroa 2020-2023: kontakizun partekatua.
- Datozen 3-4 urteetan norantz egin nahi dugu? Presente izateko mantrak
 - Sinergiak-loturak, maila anitzetan.
 - Elkarlana, gure artean eta bestelako eragileekin.
 - Aukerak bilatu.
 - Uztartu.
 - Pentsatu-sentitu-egin-eragin, hausnarketatik ekintzara pasa eta bide berrien anezka (gaztelera "lanzadera") izateko.
 - Partaidetza ardatz, eta partaidetzan gaitu.
 - Onura, banakakoa eta kolektiboa.
- Epe laburragoan: 2024an zer lortu nahi dugu Elkarteen Foroan? Langai posibleak:

2024 urterako langai posibleak Elkarteen Fororako:

- Herritarren partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren eremuetan arrakastako esperientziak ezagutzea, gertutik. Batez ere fokua jarrita elkarte askoren kezka diren puntuetan. Adibidez: nola lortu jendeak parte hartzea? (kopurua, kuantitatiboan).
- Elkartegintzan "errelebo"-faltaren kezka, eta horretarako PREST dokumentua herritarrengana hurbiltzeko lanketa.
- PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzea.
- Herritarren partaidetza / ekintza komunitarioa / Elkartegintzaren Kongresua-jardunaldiak antolatzea.
- Elkarteen jarduerak eta proiektuak partekatu eta ezagutzea, loturak erraztu eta egitasmo partekatuei bide emateko. Azoka edo antzeko zerbait?
- Elkarteen Foroa ezagutzera eman eta hedatzeko "enbaxadore" figura sortu eta horren komunikazio-euskarriak sortzea. Honek zer lotura izan ditzake Elkarteen erregistroarekin?
- Elkarteen Foroko kide diren eragileen delaldi eta berriak hobeto partekatze bideak arakatzea, dauden euskarri eta kanaletatik abiatuta; adibidez, Gizalderen newsletter/buletina.
- Elkarteen proiektuetarako finantzazio-bide berriak arakatzea: mezenasgoa.
- Udalen eta lurralde mailan dirulaguntzen irizpideak bateratzeko eskaria lantzea.
- Zerbitzutik diruz lagundutako proiektuen irakurketa eta sistematizazio lan bat egitea, Elkarteen Foroan lanketa bat merezi dezaketen gaiak identifikatzeko aldera.

Saioaren balorazioa: 9,00 (0tik 10era bitarteko eskalan).

2. topaketa

2024ko martxoak 19, asteartea, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburuak-gaiak

- 2024 urteko plangintza partekatua osatu eta zehaztea.
- Informazio-trukea.

Asistentzia

- 24 pertsona (19 emakume eta 5 gizon), 15 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari gisa; eta erraztaile taldea.

Emaiza nagusiak

- 2024an zehar lantzeko proposamen zehatzen zerrenda osatu eta leheneste-ariketa egitea, zein 2tatik hasi adosteko:

2024 urtean zer landuko dugu? Proposamen zehatzak	Leheneste ariketa (bozkak)
Parte hartzeko eragile izateko formakuntza bat prestatzea eta ematea GEI-ren bidez.	•••• (4)
Elkarteen Foroan elkarte gehiagoren partaidetza lortzeko lanketa berezia egitea.	
Elkarateok gure artean gehiago ezagutu eta elkartegintza ezagutzera emateko azoka eta jardunaldi bat antolatzea.	•••••••• (10)
PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzea.	•••••••• (8)
Elkartegintzan ditugun kezkei buruzko formakuntza bereziak geuk prestatzea eta eskaintzea.	•••••• (6)
Elkartegintza herritarrengana hurbiltzeko ekintza berezi bat egitea, herriz-herri mugituko dena.	•••• (4)
Ikastetxeetan DBHko "Ekintza komunitarioa" ikasgaiari partaidetza eta ekintza komunitarioa modu sistematikoan eta komunitate bakoitzeko elkarrekin landu ahal izateko proposamen bat garatzea.	

Saioaren balorazioa: 9,38 (0tik 10era bitarteko eskalan).

3. topaketa

2024ko maiatzak 6, astelehena, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburu-gaiak

- PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzeko zer, nork, nola, noiz zehaztea.
- Informazio-trukea.

Asistentzia

- 26 pertsona (17 emakume eta 9 gizon), 20 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari gisa; eta erraztaile taldea.

Emaitza nagusiak

- PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzeko ideia-zerrenda, gauzatzen hasteko 2 lehenetsiz:
 - PREST dokumentutik abiatuta lankidetzarako aukerak arakatzeko proiektu pilotu bat garatzea, 2-3 herritan -bertako Udalarekin eta herriko elkarteekin.
 - Herritarren partaidetzari eta elkartegintzaren garrantziari buruzko ikus-entzunezko edo dokumental bat sortzea.

Saioaren balorazioa: 9,58 (Otik 10era bitarteko eskalan).



4. topaketa

2024ko ekainak 18, asteartea, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburu-gaiak

- PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzeko 2 ekimenen oinarriak elkarrekin jartzeko lanketa kolektiboa egitea:
 - Bata Udalei zuzendutakoa: PREST dokumentutik abiatuta lankidetzarako aukerak arakatzeko proiektu pilotu bat garatzea, 2-3 herritan -bertako Udalarekin eta herriko elkarteekin-.
 - Bestea herritarrei begirakoa: Herritarren partaidetzari eta elkartegintzaren garrantziari buruzko ikus-entzunezko edo dokumental bat sortzea.
- Informazio-trukea.


Asistentzia

- 19 pertsona (13 emakume eta 6 gizon), 14 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari; eta erraztaile taldea.

Emitza nagusiak

- 2 ekimenen oinarriak jarri dira.
- Bakoitzean sakontzeko lantaldeak eratu dira, bakoitzak bere bidea egingo duelarik.

Saioaren balorazioa: **9,25** (Otik 10era bitarteko eskalan).



5. topaketa

2024ko urriak 7, astelehena, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburu-gaiak

- 1 gaia: Lidergo partekatuen jardunaldiari buruzko hausnarketa.
- 2 gaia: Elkartegintzari buruzko kongresua, abenduaren 4an.
- 3 gaia: PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzeko 2 ekimenetan emandako urratsak partekatu, alderatu, eta jarraitzeko erabakiak hartzea.
- Informazio-trukea.

Asistentzia

- 23 pertsona (16 emakume eta 7 gizon), 17 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari; eta erraztaile taldea.

Emitza nagusiak

- Lidergo partekatuen jardunaldian elkarteen begiradatik egingo den ekarpena landu eta osatu da.
- Elkartegintzari buruzko kongresuaren egitaraua eta elkarreek izango duten partaidetzaz hitz egin da.
- PREST dokumentuari zuku gehiago ateratzeko 2 ekimenetan emandako urratsak partekatu, alderatu, eta jarraitzeko erabakiak hartu dira. Zehazki:
 - Ikus-entzunezkoaren oinarriak definitu, eta Elkartegintzaren kongresuan aurkeztu ahal izateko egin beharreko lanak zehaztu dira. Lantalde txikia arduratuko da horretaz.

Saioaren balorazioa: 8,64 (0tik 10era bitarteko eskalan).



6. topaketa

2025eko urtarrilak 9, osteguna, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburu-gaiak

- PREST egitasmoa: primizian ikus-entzunezkoa ikusi eta proiektu pilotuaren lehen urratsak zehaztea.
- 2025 urtean Elkarteen Foroan intentzioa zertan jarriko dugun partekatzea.
- Informazio-trukea.

Asistentzia

- 23 pertsona (16 emakume eta 7 gizon), 17 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari; eta erraztaile taldea.

Emaitza nagusiak

- PREST egitasmoa:
 - Ikus-entzunezkoa ikusi, baloratu eta azken ukituak emateko ekarpenak jaso dira. Hedapena emateko hausnarketa abiatu da (amaitzeke).
 - Proiektu pilotuaren lehen urratsak zehaztu dira, lantaldea berraktibatzeke erabakia hartuz.
- Beste gai askori buruzko informazioa partekatu da.

Saioaren balorazioa: 9,08 (0tik 10era bitarteko eskalan).



Barne koordinazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak Prometearen taldearen kanpoko laguntza izan du honakoetarako:

- Elkarteen Foroaren urteko ibilbidea planifikatzea.
- Elkarteen Foroaren aurrez aurreko topaketen baterako diseinua, erraztasuna eta dokumentazioa.
- *Slack* plataformaren dinamizazioa.

Prozesua behar bezala garatzeko, bi taldeak –Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua eta Prometea– lankidetzan aritu dira, etengabeko koordinazioa zainduz.

Zehazki, **koordinaziorako 7 barne-bilera** egin dira -guztiak online formatuan, eraginkortasuna helburu-, data hauetan:

- 2024ko urtarrilak 11
- 2024ko martxoak 4
- 2024ko apirilak 16
- 2024ko apirilak 29
- 2024ko maiatzak 31
- 2024ko irailak 13
- 2024ko abenduak 12

Gainera, posta elektronikoa eta telefono bidez etengabeko komunikazioa mantendu da.

Koordinazioa elkarreetara ere hedatu da: Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak komunikazio arina izan du Foroa osatzen duten erakunde eta elkarteekin urtean zehar, honako hauen bitartez:

- Komunikazio formalak: Foroaren eta lantaldeen deialdiak, posta elektronikoaren bidez.
- Komunikazio informalak: telefono-deiak, unean uneko gaiak alderatzeko.
- Aurkezpen- eta harrera-jakinazpenak, aurten lehen aldiz Forora hurbildu diren elkartei.

Etengabeko komunikazioa: *slack* plataforma

Elkarteen Foroaren *slack* plataforma 2021eko otsailaren 18an sortu zen:
<https://gfaelkarteenf-ssk5670.slack.com/ssb/redirect>.

2025eko urtarrilean eguneratutako datuen arabera:

***slack* plataforma**

Erabiltzaileak

- 38 pertsona edo erakunde parte-hartzaile

Edukiak

- Elkarrizketarako 4 hari ditu, eta horiek foroan edo foroko kideek sortutako edukiekin elikatzen dira aldian-aldian:
 - #elkarteenforokosaioak-sesionesdelforo
 - #elkarteenberriak-temasdenuestrasasociaciones
 - #orokorra-general
 - #trebakuntza-formación

Laguntza-materiala

- Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak erabilerako mini-gida praktikoa egin zuen 2021ean. Tartean behin gida hori partekatzen da Elkartearen Forotik bidaltzen den dokumentazioarekin batera, batez ere kide berriek plataformarekin bat egin ahal izan dezaten.

2024ko jarduera

- Foroaren osoko bilkuretarako deialdiak eta txostenak *slack* bidez partekatu dira. Hala ere, funtzio horretarako e-mailak hobe funtzionatzen du.
- Saioen artean elkarte batzuk plataforma baliatu dute deialdi propioak edo esteka interesgarriak partekatzeko -edo Zerbitzuari eskatu diote informazio hori *slack*-era igotzea-. Nahiz eta erabilera hau oraingo txikia izan, epe laburreko gonbidapenak eta deialdiak partekatzeko potentziala badauka.
- Oraingoan, Foroak berak kanal hau mantentzearen aldeko hautua egin du.

3

Urteko balorazioa

2024 urtea ixteko

Balorazio-begiradatik, urte hasietan ezarritako helburuetan lorpen esanguratsuak eman dira. Nagusienetan azpimarra eginda:

Elkar ezagutzen sakontzen goaz.

Foroan parte hartzen duten elkarteek gehiago dakite Aldundiari buruz, batez ere Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren jardunaz. Baita alderantziz ere.

Eta elkarteek haien artean ere, zeharka bada ere.

Horrek harreman berriak eta konfiantzarako bideak zabaltzen ditu.

Gipuzkoako elkartegintza aitortu, sozializatu eta ikusarazteko ekarpen esanguratsua egin da.

Zuzenean horretara bideratutako emaitza "ukigarriak" dira PREST Elkartiri ikus entzunezkoa, eta PREST proiektu esperimentalak.

Herritarren parte-hartzeari buruz hausnartzen eta lantzen jarraitu da.

Partaidetza izanik kide guztiek komunean duten gaia, lantzen den guztian eta egiteko moduetan etengabe begirada hori txertatuta dago.

Sinergiak bilatzen goaz antzeko helburuekin lan egin behar duten beste espazio batzuekin –Aldundi barruan eta kanpoan–.

Erakunde arteko espaziotik bultzatutako Lidergo partekatuen jardunaldiari ekarpena egin zaio; Elkartegintzaren kongresuan Elkarte Foroko kideak egon dira; Aniztasun sarearekin lotura informala badago (kide batzuk bietan daudelako). Aurten sinergiak bilatzearen mezua inoiz baino presenteago egon da Foroan.

Elkarrekin eginez, eta erakundea eta elkarteak biltzen diren espazio anitza baliatuz, ikasten eta zubiak eraikitzen jarraitu dugu.

Elkartek bereziki baloratzen dute Foroan erakunde publiko batekin elkarlanean aritzeko modu berriak frogatzen direla, harreman horizontalago eta hurbilagokoen bila. Zuzendaritzaren borondatea ikusi egiten da, atal desberdinetan eta espazioaren zaintzan.

Apustu horrek zenbait gauzetan des-ikastea eskatzen du, eta bata bestearen indargune, rol eta baliabideetatik eraikitzea. Bide horretan doa Gipuzkoako Elkarteen Foroa.


2024an hausnarketatik ekintzara pasa gara; eta hori jauzi kualitatiboa da Gipuzkoako Elkarteen Foroaren ibilbidean. Izan ere, PREST ekimenari lotutako 2 proiektu zehatz eta kolektibo diseinatzeko eta garatzeko gai izateak esan nahi du Elkarteen Foroa osatzen duten eragileek gaitasun, asmo, ahalegin eta baliabide materialen oinarri sendoa dutela, eta helburu horien zerbitzura jarri dituztela horiek guztiak.

2024an parte-hartzaileen kopurua handitu egin da eta urratsez urrats Foroa kontsolidatzen ari da. Jauzi kuantitatiboa suposatzen du horrek: Elkarteen Foroa hasieratik sostengatzen duten pertsona eta eragile multzo bat dago, bidean bat egiten doazen eragile eta pertsona berriekin batera. Horren guztiaren baturak 137 asistentzia adierazi ditu urte osoan.

Jarraipena 2025 urtean

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren eta parte hartzen duten elkarteen konpromisoarekin, **Gipuzkoako Elkarteen Foroak jarraipena izango du 2025 urtean.**

Urterako helburu zehatzak Foroan bertan definituko dira, bidean jarraitzeko 2024an identifikatutako elementuak kontuan hartuz. Horien artean daude elkar-ezagutzan sakontzea, PREST egitasmoari segida ematea, eta Aldunditik etor daitezkeen aukera eta erronkei ekarpena egitea.



Eskerrik asko, guztioi!
Jarrai dezagun!

